# BESTELAKO XEDAPENAK

## ETXEBIZITZA, HERRI LAN ETA GARRAIO SAILA

## 4292

*EBAZPENA, 2012ko uztailaren 16koa, Garraioetako zuzendariarena, salgaien garraio konbinatua sustatzeko laguntza-programa bat ezartzen duen 2011ko uztailaren 27ko Aginduan aurreikusitako laguntzen onuradunen zerrenda argitara ematen duena.*

Diru-laguntzak emateko jardunean errespetatu behar den publizitate-printzipioa betetzeko, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren 2011ko uztailaren 27ko Aginduak 9.3 artikuluan xedatzen duenez, diru-laguntza guztiak emandakoan onuradunen zerrenda Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu beharko da.

Hortaz, aurreko lerroaldean zehaztutakoaren arabera, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Autonomia Erkidegoko salgaien garraio konbinatua sustatzeko laguntza-programa bat ezartzen duen Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren 2011ko uztailaren 27ko Aginduan aurreikusitako laguntzak, Garraioetako zuzendariak bere eskumenak erabiliz eman dituen ebazpenen arabera, zeini eman zaien argitara ematea. Onuradunen zerrenda ebazpen honekin batera doa, eranskin gisa.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko uztailaren 16a.

Garraioetako zuzendaria,
MIKEL DÍEZ SARASOLA.

ERANSKINA

Euskal Autonomia Erkidegoko salgaien garraio konbinatua sustatzeko laguntza- programa bat ezartzen duen Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioetako sailburuaren 2011ko uztailaren 27ko Aginduan aurreikusitako laguntzen onuradunak.

| Onuraduna | Diru-laguntza |
|---|---|
| Sacytrans, S.L. | 2.174,25 euro |
| Transportes Argatxa, S.A. | 28.496,26 euro |
| Owen Transport, S.A. | 7.839,00 euro |
| Patinter España, S.L. | 65.938,00 euro |